



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



BOLUNTARIOTZAREN
EUSKAL KONTSEILUA

CONSEJO VASCO
DEL VOLUNTARIADO

Euskal Autonomia Erkidegoko **boluntariotzaren egoera 2015ean**

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren urteko
txostena

Aurkibidea

Lanerako plana	3. or.
2015eko txostena	4. or.
Hasierako gogoeta	4. or.
Balorazio soziala	5. or.
Ezagutza-maila	6. or.
Mugarriak	7. or.
Aldaketak eta joerak	8. or.
Zailtasunak	10 or.
Erronkak	13. or.
Neurriak.....	15. or.

LANERAKO PLANA

Definizioa

Txosten labur honek Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren 2015eko egoera islatzen du, eta garapenean eta kudeaketan diharduten agente esanguratsuek egindako analisi sakona du oinarri.

Justifikazio soziala

Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 15. artikuluari jarraikiz, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren eginkizuna da «Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoeraren berri eman, urtero, txosten baten bidez». Lege-agindu hori bi arrazoiengatik ezarri da: batetik, gure lurraldeko borondatezko parte-hartze sozialaren egoera uneoro ezagutzeko beharra, eta, bestetik, parte-hartze horren bilakaera aztertze beharra; hartara, boluntariotza sustatuko duten, gabeziak zuzenduko dituzten eta lana eta eragin soziala hobetzen lagunduko duten neurriak zehazteko.

Helburuak

- 1.- Euskadiko boluntario-lanari lotutako elementu esanguratsuenak biltzea.
- 2.- Gure lurraldeko boluntariotzaren bilakaerarekin lotutako mugari nagusiak ezagutzea.
- 3.- Boluntariotzaren garapena baldintza dezaketen gizarte-joerak islatzea.
- 4.- Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak egiten duen urteko jarduera-memoriaren laburpena egitea.
- 5.- Boluntariotza-erakundeen eroldaren, legeriaren eta EAEko boluntariotza-agentzien datu eta informazio esanguratsuenen laburpena biltzea.

Edukia

- 1.- EAEko boluntariotzaren 2015eko egoeraren analisi orokorra.
- 2.- Boluntario-lana hobetzeko neurriak eta gomendioak.

Metodologia

Elkarrizketa sakonak egin zaizkie EAEko parte-hartze sozialaren eremuko pertsona esanguratsuei, eta, horrez gain, hausnartzeko eta datuak biltzeko talde-saioak egin dira.

Elkarrizketetan eta lan-saioetan parte hartu duten pertsonak, agenteak eta taldeak duten ibilbide eta eskarmentuagatik hautatu dira. Eusko Jaurlaritza eta Boluntariotzaren Euskal Kontseilua arduratu dira lan horretaz. Bi tresna erabili dira.

a.- Elkarrizketak. Aurrez aurreko 18 elkarrizketa egin dira boluntariotzaren eta parte-hartze sozialaren eremuko 21 pertsona nabarmenekin. Elkarrizketa-gida bera erabili da guztiekin, eta alderdi hauek jorratu dira: 1/ boluntariotzaren irudi soziala; 2/ boluntariotzaren eta parte-hartze sozialaren errealitatearen ezagutza-maila; 3/ gaur egungo egoera eta joerak; 4/ 2015eko mugari nabarmenak; 5/ zailtasunak eta erronkak; 6/ neurriak. Hauek izan dira parte-hartzaileak:

- Gabin Azaola (Bizkaiko Foru Aldundia);
- Idoia Aldama (Euskadiko GGKEen koordinatzailea);
- Miguel Gómez (Gazteleku);
- Zesar Matínez (EHU);
- Gonzalo Rodríguez (Sareen Sarea);
- Patricia Bárcena (CEAR Euskadi);
- Natxo Arnaiz eta Gontzal Urretxaga (Bolunta);
- Ane Ferrán (Deustuko Unibertsitatea);
- Itsaso Andueza (EGK);
- Miren Gurrutxaga eta Ander Larrea (Gizalde);

- .- José Luis Madrazo (Eusko Jaurjaritza);
- .- Koldo Aulestia (Afagi);
- .- Mikel Malkorra (Sargi);
- .- Rafa Hernández (Gipuzkoako Foru Aldundia);
- .- Amaia Lizoain (Gasteizko Udala);
- .- Laura Bañales eta Ainara Pérez (Sartu);
- .- Pilar Redondo (Secot);
- .- Juan Luis Beltrán de Guevara (Arabako Foru Aldundia).

Elkarrizketok ez dira beren horretan jaso txostenean; aitzitik, elkarrizketen edukiak prozesatu egin dira formalki, hainbat iritzi eta analisi adierazten dituen korpus bakar bat ezartzeko.

b.- Hausnarketa-saioak. Talde-laneko bi saio egin dira gaur egun EAEn diharduten boluntariotzaren gizarte-erakundeen sareekin; hots, hauekin: Sereginez (Gipuzkoan) eta Boluntariotzaren Foroa (Bizkaia).

2015eko TXOSTENA

Hasierako gogoeta

Parte hartu duten pertsonak eta agenteak bat datoz: gaur egun, ez dugu oso argi zer-nola zehaztu eta definitu zehatz-mehatz boluntariotzaren kontzeptua, eta are parte-hartze sozialarena ere.

Parte-hartze sozialaren modu ezberdinak deskribatzeko, termino ugari daude; beraz, adierazleak nahastu egiten dira, eta muga semantikoak ez dira garbiak. Hori horrela, «boluntariotza» hitzaz gain, beste hitz eta lokuzio hauek ditugu: militantzia, aktibismo, herritar aktibo, hirugarren sektore, herritarren parte-hartze eta gizarte zibil antolatu. Batzuetan, sinonimoak dira. baina, beste batzuetan, antagonikoak, erabiltzen dituztenek zer ideologia duten edo horiei lotuta zer imaginario dauden.

«Boluntariotza» terminoa *statu quo*a zalantzan jartzen ez duen laguntza-tradizio batekin lotzen da, eta ez dator guztiz bat Euskadiko parte-hartze klasikoaren herentziarekin. Azken horrek, bada, lotura handiagoa du espazio aldarrikatzaile eta eraldatzaileekin. Nolanahi ere, orokortu egin da, eta gizarte-ekimenaren zenbait eremutan normalizatu, eta betikoak diren eta gure artean errotuta dauden kontzeptuak zokoratu ditu, esate baterako, militantziarena. Hori gertatu den unean, gainera, parte-hartzearen jarraibide garrantzitsuak ere aldatu dira, ikusiko dugunez; ondorioz, urtetan finkatuta egon diren zenbait printzipio irauli eta zalantzan jarri dira.

Boluntariotzaren kontzeptuari kritikarik sakonena egiten diotenek uste dute hori ulertzea parte-hartze sozialaren rol eraldatzaile eta kritikoa desaktibatzen saioa bat besterik ez dela. Pentsamolde horren arabera, boluntariotzaren kontzeptua erabilgarria eta tradizionalista da, eta gizarte-jarduera despolitizatzen, desideologizatzen eta etxekotzen bideratuta dago. Pentsaera neoliberalaren nagusitasunari lotuta dago; alegia, gizarte zibilari bere burua antolatzen aukera ematea, baztertuen dauden pertsonen eta egoera arazotsuenei zenbait zerbitzu emateko, baina gauzen ordena zalantzan jarri gabe. Funtzio hirukoitza beteko luke, beraz: batetik, nolabaiteko disidentzia-mailaren integrazio kontrolatua; bestetik, koltxoi sozial bat sortzea karitatearen bidez, eredu sozioekonomikoen arteko gatazka-gaitasuna desaktibatuta; eta, azkenik, kostu txikiko zenbait zerbitzuaren *de facto* pribatizazioa, burokratizazio-, teknifikazio- eta profesionalizazio-sistema enpresarialak berenganatzen dituzten erakundearen esku-hartzearen bidez. Korrante horren barruan, batzuek uste dute boluntariotza desagertu egin beharko litzatekeela, militantziaren mesedetan; aldiz, beste batzuen aburuz, ondo dago laguntza eta zerbitzuak irabazi asmorik gabe ematen dituen sektore bat egotea, dirua ez duena ardatz, baina kontziente izanik eraldatzaile izateko gaitasun

mugatua duela eta ondo bereizita dagoela aktibismotik eta militantziatik –hor kokatuko litzakete eragin politikoa–.

Bada beste jarrera bat, gehiengoarena; alegia, terminoa bera zalantzan jarri gabe, gizarte-jardueraren errealitatean integratzen saiatzen dena, baina, parte-hartzeak betidanik izan dituen balio kritiko, solidario eta eraldatzaileez hornituta. Hala, baieztapen hau egiten da: boluntariorza eraldatzailea baino ezin daiteke izan. Nolabait, militantziaren balioak terminologia berrira pasatzea litzateke. Jarrera nagusia denez, ikuspegi horretatik ulertu behar dira txosten honetan jasotako hausnarketa gehienak.

Laburbilduz, elementu berriak biltzen dira parte hartzeko moduetan, nahiko berriak diren terminologiekin, eta nolabaiteko identitate-krisi batean sakontzera datoz, inplikatzeko pausoa ematen duten pertsonen nahiz erakundeen krisian, hain zuzen. Asko ez dira identifikatzen «boluntariorza» terminoarekin; horretatik kanpo daude, eta uste dute terminoak eduki-falta duela eta ez dituela konpromisoak argi zehaztuta; beste batzuek, aldiz, berengan hartzen dute, baina konpromiso ideologiko handiago baten balioen falta sumatzen dute eta balio kritikoak barne hartzen saiatzen dira; eta beste batzuek onartu egiten dute, zalantzarik egin gabe.

«Boluntariorza» kontzeptuak, beraz, ez du muga argirik, anbiguotzat jo daiteke, eta are abstraktutzat ere, eta askotan, ikuspegi erredukzionistak ditu. Inork ez daki zehatz-mehatz kontzeptuak zer izan behar duen, eta norantz eboluzionatu behar duen, ez erakundeek, ez pertsonak, ez eta gainerako agente sozialek ere. Baina, antza denez, nahasketa handiago baten sintoma da hori, eta terminologiatik harago doa; hots, nola eta norantz bideratu parte-hartze soziala?

Balorazio soziala

Parte hartu duten pertsona guztiak bat datoz: gizarteak boluntariorzaren irudi ona du. Gizarteak oso ondo ikusten eta baloratzen du boluntario-lana, bai eta boluntariorzaren diharduten erakundeak ere, beste agente batzuk (enpresak, alderdi politikoak, sindikatuak, elkargo profesionalak, eta abar) baino askoz hobeto. Aldeko irudi hori estuki lotuta dago pertsonak ematen dioten balioekin; hots, altruismoa, elkartasuna, zerbitzua, laguntza, harrera, sorospena, guztien ona, konpainia, karitatea eta senidetasun, beste batzuen artean.

Baina, hori oro har esanda, berehala ikuspegi positibo horren ñabardurak azaleratzen dira. Ñabardurok, nagusiki, hiru norabidetan bideratzen dira. Lehenik eta behin, adierazten da onkeriaren ikuspegi erredukzionistatik sortutako pertzepzio positibo bat dela eta oso lotuta dagoela laguntza eta zerbitzuak ematearekin; hau da, boluntariorzak estalita ez dauden beharrei erantzuteko jarduten duenean. Ikuspegi erromantiko eta idealizatua da, baina ez du zerikusirik handirik ekimen eraldatzaile batekin. Izan ere, kontua aldatu egiten da karitatearen estereotipoek harago joan eta egoera bidegabeak kritikatzeko, aldarrikatzeko eta salatzeke esparruan sartzen denean: une horretan, zorrotzago erreparatzen zaio boluntarioen jarduerari. Aurreko eztabaida terminologikora etorruta, esan genezake boluntariorzaren alderdi aktibista edo militanteari ez zaiola begi atsegin berekin begiratzen. Era berean, zer taldeekin edo zer eremutan lan egiten den ere argi-ilunak sortuko ditu, gizarteak talde edo eremu horiei buruz zer pentsatzen duen; edo, beste era batera esanda, ondo ikusten da hurrekin aisialdian lan egitea, adineko pertsonen konpainia egitea edo desgaitasunen bat duten pertsonak laguntzea, baina agian ez dago hain ondo ikusita etorkinekin lan egitea edo talde feminista batean aritzea.

Bigarrenik, baina hein txikiago batean, adierazten da batzuetan mesfidantza sortzen dela parte-hartze boluntarioaren irabazi-asmorik ezaren inguruan eta diru publikoa mota horretako jarduerak finantzatzera bideratzearen egokitasunaren inguruan. Hainbat arrazoiengatik sortzen dira errezelo horiek: gaur egun oraindik ere harrigarria iruditzen zaigu norbait bere denbora eta dirua emateko prest egotea, trukean ezer espero gabe; ez dugu konfiantza handirik pertsonen eta erakundeen zintotasunean (batik bat eskandaluren bat bada tartean); edo zalantzan jartzen dugu erakundeen profesionaltasuna eta horien kudeaketa-gaitasuna, bai eta

erakundeen ardura ere diru-laguntzak kontrolatzeko garaian. Horrez gain, batzuen aburuz, boluntariorzak lanpostuak kentzen ditu.

Hirugarrenik, zentzu bikoitzarekin adierazten dira administrazio publikoak. Lehenik, ohartarazteko boluntariorza eta, oro har, parte-hartzea ondo ikusita daudela ekimen publikoaren osagarri direnean, administrazioak eman beharko lituzkeen beharrak, espazioak eta zerbitzuak estaltzen dituelako; baina, ekimenak kutsu kritiko eta eraldatzaileak hartu bezain pronto, mehatxutzat jotzen da. Nolanahi ere, bigarrenik, boluntariorza aliatu duenean ere, administrazioak ez du behar beste baloratzen, ez BPGri erreparatuta, ez eta zerbitzu-hornitzaile gisa ere, eta baliabide gutxi jartzeaz gain, ikuspegi utilitarista besterik ez du.

Ezagutza-maila

Azaldutako ñabardurak gorabehera, esan dugu gizartean izen ona duen parte hartzeko modua dela boluntariorza. Alabaina, nahiko ezagutzen al da? Elkarrizketatutako pertsona guztiak iritzi berekoak dira: boluntariorza ondo baloratutako errealitate bat da, baina ez da aski ezaguna.

Publiko orokorrari buruz hitz egiten badugu, ondorioztatzen da azaletik ezagutzen ditugula boluntariorza eta parte hartzeko bestelako moduak. Ezagutza orokor bat dago, badakigu existitzen duela, baina ez dugu sakon ezagutzen: zer den, nor dagoen atzean, zer balio dituen, nola egiten duen lan, nola lagun dezakegun, zer erakunde mota biltzen dituen, zer proposamen egiten dituen, eta abar. Erakunde handiak edo mediatikoenak ezagutzen ditugu, batik bat gizarte-ekimenari lotuta badaude, baina baita modu epidermikoan ere, eta ematen dituzten zerbitzuetako batzuen berri baino ez dugu. Proposamen politikoei eta aldaketa-proposamenei entzungor egiten diegu eta, are gehiago, normalean ez dira lotzen boluntario-lana eta ekimen eraldatzailea pertsonatik pertsonarako erlazio-esparrutik kanpo.

Administrazioaren kasua antzekoa da. Esan daiteke boluntariorzari eta gizarte-mugimenduari buruzko ezagutza partziala eta zatikatua duela. Partziala da, lehenik, ez delako ezagutzen benetan boluntariorzak bere osotasunean zer esan nahi duen, ez ekonomikoki edo praktikoki, ez kontzeptualki; esterako, zer rol duen funtsezko agente gisa parte hartzeko benetako demokrazia baten eraikuntzan. Eta bigarrenik, oro har, aniztasunaren espektro nahiko murrizta ezagutzen dugulako; hori horrela, erakunde handien, mediatikoenen eta lankidetzaren gehien egin ohi dituztenen berri baino ez dugu. Ildo horretatik, bi alderdiak dagoeneko aipatu dugun zerbaiti lotzen zaizkio: administrazioen utilitarismoa gizarte-mugimenduaren aurrean, eta horri askotan sumatzen dioten mehatxua.

Eta zatikatua da, adituen aburuz, sail bakoitzak bere eskumen-arloarekin zerikusia duten erakundeak eta boluntariorza ezagutzen dituelako, eta soilik partzialki, oraintxe ikusi dugun bezala. Administrazioak ez du boluntariorzari eta parte-hartzeari buruzko ikuspegi orokorrik; hortaz, ez dago gaiari buruzko zeharkako ezagutzarik ez eta, jakina, politika orokorrik ere, eta, ondorioz, ez da zertan aintzat hartu kontsultak egiteko edo erabakiak hartzeko garaian.

Diru-laguntzen politikez gain, ez dago batera lan egiteko kulturarik eta, salbuespenak salbuespen, ez dago administrazioaren eta elkartearen arteko harreman eta koordinaziorako espaziorik. Gainera, administrazioak ez du gizarte-egitura ezagutzeko jarrera aktiborik izaten eta, askotan, hauengatik ezartzen dira harremanak: edo gizarte-erakundeek ematen dituztelako behar diren urratsak, edo administrazioaren baten barruan kargu edo funtzioaren bat duten pertsona jakin batzuk sentsibilizatuta daudelako.

Gizarte-mugimenduak bere buruari eta boluntariorzari buruz zer ezagutzen duen ere galdetu da, eta iritziak aurreko ildoari jarraitzen diote: gizarte-erakundeek ere ez dute elkar ezagutzen, eta ez dute oso argi boluntariorza zer den. Ikuspuntu orokorretik, erakundeak hasieran aipatzen genuen nahasmendu horren parte dira, bai eta protagonista ere. Ikuspegi zehatzera etorruta, erakundeek ere ez dute elkar ezagutzen, eta ez dute beren artean harremanetan egoteko bide normalizatu eta ohikorik. Ezagutza handiagoa da lurralde txikietan (esaterako, auzo eta herrietan), baina eremua handitu ahala, gutxitu egiten da; jarduera-nitxo berekoak diren

erakundeek ezagutza handiagoa dute, baina, berriro ere, arlo ezberdinetakoak direnean, gutxiago dakite bata besteari buruz. Hala eta guztiz ere, toki txikietan edo helburu osagarria dutenetan, ezagutza-maila ez da handia eta, askotan, kasualitatez foro batean edo antzeko espazio batean elkartzearen mende dago. Ildo horretatik, eranstean da ezagutza- eta harreman-faltaren adierazgarri dela oso lan gutxi egiten dela sarean.

Hedabideek ez dute gizarte-mugimendua ezagutzen, eta ez dakite boluntariotza zer den. Guztiak bat datoz horrekin. Hedabideek boluntariotzarekin duten harremana utilitarista baino ez da, eta gizarte-mugimendua ez dago beren informazio-lehentasunen artean. Parte hartze sozialari buruzko edukiak estereotipatu egiten dira, eta modu sinplean garatzen dira, ez sakon, eta xehetasunei erreparatu gabe. Oso diskurtso zehatzak ezagutarazten dira –ez beti egiaztatuak–, boluntariotzari eta gizarte-mugimenduari buruzko eta horiek bilatzen dutenari buruzko ikuspegi oso murriztua emanda. Gaurkotasanaren berri eman behar dutenez, berehalakotasunak bultzatuta jarduten dute eta, askotan, sentsazionalismoak bultzatuta. Lekukotza probokatzailerak bilatzen dituzte, baina taldeen arazoetan sakondu gabe, eta partikularrari buruzko atentzioa deitzen dute, egitura-kausetan sartu gabe. Nazioarteko egunen oportunitasak jokatzeko dute, baina gizartearen arazoak eta boluntariotzaren lana ez dira beren eguneroko agendan sartzen. Ondorioz, ez zaie gutxieneko jarraipena egiten parte-hartzearekin edo boluntariotzarekin eta horren erakundeekin erlacionatutako informazioei, eta garrantzia ematen zaie noizbehinkako jarduerari, inolako zentzu solidario edo eraldatzailek ez dutenei baina atzerrian egiten direnei oso gai mediatikoen inguruan, behin eta berriro alde batera utzita gertuko eremuan egiten den eguneroko lan kritikoa.

Hezkuntza-komunitateari lotuta, gehiengoak uste du boluntariotzari buruzko ezagutza-maila urria dela. Kontrako iritzirik ere badago, baina, oro har, bat datoz: hezkuntza-mundua eta gizarte-erakundeak ez daude bata bestearengandik hurbil. Diotenez, hezkuntza-inguruek begikotasunez begiratzen diote boluntariotzari eta parte-hartzeari, baina, oro har, ez daude curriculumetan sartzeko, sustatzeko eta ezagutarazteko prest. Eta halakorik gertatzen denean, sentsibilizatuta dauden pertsonen ekimen partikularragatik edo garrantzia eman nahi dioten berriazko zentzoei esker da.

Mugarriak

Zenbait gertaera esanguratsu izan dira 2015ean boluntariotzari eta parte-hartzeari lotuta.

Lehena, eta argien ikusi duguna, errefuxiatuen krisia izan da, Siriako gerraren ondoriozkoa. Bete-betean eragin dio gizarteari, eta ehunka pertsona manifestatu dira: batzuk boluntario-lanetarako prest agertu dira, beste batzuek dirua edo ondasunak eskaini dituzte, eta beste batzuek errefuxiatuak hartzen dituzten tokietara joan nahi izan dute. Hori esanda, ohartarazi behar da halaber, kontzientziei eragitea lortu badu ere, kasu gehienetan irizpide eraldatzailek gabe egin duela; alegia, berehalako karitatera eta enpatira jo da, eta ez gatazkaren kausetara eta gure gobernuak agertoki horretan izaten ari diren rolari buruzko kritikara.

Bigarrena janari-bilketa masiboa izan da, elikagai-bankuak buru direla. Asko eta asko aritu dira horretan, baina, kasu honetan are argiago, ikuspegi karitatibo eta paternalistarekin nagusiki; alegia, limosnaren ikuspuntutik jardun da, ez benetako elkartasun horizontaletik eta bazterkeria-egoerak eragiten dituen egitura-kausari kritika eginez.

Hirugarrena Gora Gasteiz plataformaren sorrera izan da, Javier Maroto Gasteizko alkate ohiak laguntza publikoei eta diru-sarrerak bermatzeko errentari buruz egindako adierazpenei erantzuteko. Plataformaren helburu eta edukiez harago, zera nabarmentzen da: izaera herrikoa, espontaneo eta antolatua, ohiko erakunde bat ez bada ere; lidergo partekatua, bultzada eraldatzailea, kontzientzia politikoa eta jendea integratu eta biltzeko gaitasuna, bai eta jarraitzeko legatua, hasiera eta amaiera zuen esperientzia bat izan bada ere.

Laugarrena itzaropen politikoen sorrera izan da, tartean Podemos alderdiarena; hain zuzen ere, oinarriko parte-hartze sozialetik eratu dira, eta adierazpen formal, politiko eta antolatuan egituratu dira.

Bosgarren mugarría Lehendakaritzak boluntariotza ofizialki errekonozitzea izan da, lehendakaria buru zela. Ezaugarri horietako lehena izan da, eta herrialdeko erakunde-ordezkarí nagusienaren eskutik izan da.

Seigarrena Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren lana izan da eta, zehazki, erakundeak laguntzeko eta beren kudeaketa-gaitasuna indartzeko ekintzak.

Zazpigarrena hirugarren sektorearen liburu zuriaren argitalpena izan da, erakundeen lanaren balioa nabarmentzeko eta etorkizunari begira dauden erronkak sistematizatzeko tresna baita.

Zortzigarrena 2016ko Donostiako kultur-hiriburutza izan da, toki-administrazioek boluntariotzak egiten duen lanari buruzko kontzientzia hartzeko nolabaiteko bultzada eman baitu. Nolanahi ere, bada alderdi negatiborik, elkarriketatuen ustetan, esaterako: parte hartzeko proposamenen atzerapena; boluntariotzaren kontzeptua erabiltzeko eta ildo horretan esperientzia bat abiarazteko irizpide-falta; eta parte-hartzearen eta lortu nahi den gizarte-egituratzearen legatuaren inguruko plangintza-falta.

Azkenik, **bederatzigarrena** hirugarren sektorearen lege-proposamena da; Eusko Jaurlaritzak izapidetu du, eta horren jarduera arautzea du xede. Hirugarren sektorea gizarte-politikak sortzeko agente aktibotzat jotzeko beste aurrerapauso bat izan da.

Aldaketak eta joerak

Txosten honen helburua ez da boluntariotzaren bolumenari buruzko analisi kuantitatibo bat egitea. Dena dela, kontsultatutako pertsona guztiek, batik bat erakundeei lotutakoek, adierazi dute parte-hartzearen kopuruek egonkor eutsi diotela azken urteetan, eta 2015ean ez dela mugimendu esanguratsurik antzeman, ez gora, ez behera. Baieztapen horrek ez dio inolako zenbaketa estatistiko adierazgarri erantzuten; aitzitik, parte-hartzaileen pertzepzio subjektiboak dira. Nolanahi ere, egokia iruditu zaigu txosten honetan jasotzea.

Konsultatutako pertsonen arabera, hiru multzo handitan bildu daitezke gaur egungo boluntariotzan eta parte-hartzean antzematen ari diren aldaketa eta joerak: lehenengoa boluntariotzaren kontzeptuari buruzkoa da, bigarrena gizarte-ingurunetik datozen banakako erantzunei buruzkoa eta hirugarrena erakundeei buruzkoa.

Boluntariotzaren kontzeptuari buruz luze hitz egin dugu txostenaren lehen atalean («Hasierako gogoeta») eta ez dugu askoz ere gehiago jorratuko. Zera gehituko dugu besterik gabe: oro har uste da «boluntariotza» ez dela gizarte-mugimenduak aldarrikatutako termino bat izan, hortik kanpoko agenteek sartutako termino bat baizik. Zenbait pertsonaren aburuz, itxuraz loturarik ez duten parte hartzeko hainbat modu integratzeko borondateagatik gertatu da hori; baina, beste batzuen arabera, parte-hartzeari oinarri politikoa eta aldarrikatzailea kentzeko asmoarekin, militantziaren eta konpromiso eraldatzaile argia duten beste ahots batzuen kaltetan. Nolanahi ere, ematen du «boluntariotza» terminoak ez duela lortu oro har gizartean parte hartzen duten pertsonak biltzea, eta are gutxiago aldaketarako ekintzan dihardutenak.

Beste bi multzoei helduta, ohartarazten da adierazten diren aldaketa eta joerak azken hamarkadetan aldatzen joan den gizarte baten ondorio direla. Hori horrela, boluntariotzan eta parte-hartzean sumatzen duguna **gizarte-inguruaren** isla baino ez da. Ildo horretatik, modu erabakigarrian eragin duen alderdi batez hitz egiten da; alegia, proposamen ekonomiko eta politikoei hartu duten norabide neoliberala, gizarte-garapenean eragin izugarria izan duena. Izan ere, errealtatearen pertzepzioa aldatu da, bai eta erronkei eta ezbeharrei aurre egiteko modua ere. Pertsonen egonkortasuna bermatzen ez dien gizarte batek ez du konpromiso kolektibo eta iraunkorra errazten, norberarekiko konpromisoa baizik, eta, asko jota,

gertukoarekiko konpromisoa eta, ahal bada, epe motzeko emaitza hautemangarriekin. Pertsonak, gainera, etengabe lehiatu behar dira bizi-kalitate hobea lortzeko. Beraz, alde batetik, gaur egun dugun bizi-estiloarekin konpromiso egonkorak izan ditzakegu eta, bestetik, etengabeko arrisku-sentsazioa dugu. Eta horrek ez du elkartasuna errazten, baizik eta «nork bere burua salbatzea». Ondorioz, gora egin du indibidualismoak; alegia, gehiago jotzen dugu konpromiso jakinetara, gai zehatzetara, denbora asko eskatzen ez dutenetara, eta, ahal dela, norberari eragiten dioten gaiei eta erantzukizun gehiegi eskatzen ez dutenei lotuta.

Hala, aipatu dugun bigarren multzoan sartzen gara, **banakako erantzunei** buruzkoan; multzo horrek motibazio nahasiak eta ugariak eta desideologizazio maila handia ditu ezaugarri. Gaur egungo boluntariorzak konpromiso-modu lasaietarako joera handia du, erakundeen ideietatik aldentuta, eta konpromisoaren unibertsaltasunak ez du jada ekintza zehatz eta gertukoak bezain indar handia.

Horren ildotik, ekintzaren elkarrekikotasunak hartzen duen garrantzia nabarmendu behar da. Alde batetik, gertukoarekiko, ondoan dugun pertsonarekiko, enpatia sentitzen dugu eta, bestetik, *quid pro quo* espero dugu, kontziente ez bada ere: nik behar dut, zuk emango didazu; zuk behar duzu, nik emango dizut. Eremu horretan dago berariaz esku hartzen duen boluntariorza, asistentzialista, sintomari eragiten diona, ez kausei; mota horretako boluntariorzan, bada, garrantzi handiagoa dauka pertsona jakinen gaineko ekintza partikular eta indibidualizatuak, norbanakoaren ekintzaren eraginkortasuna ikus baitaiteke.

Jarduteko modu hori erakundeetan garatu nahi da askotan, esku hartzeko aukera ematen duen esparrua baitira, baina boluntario horiek intentsitate txikiko konpromiso bat eskatzen dute, lankidetzara hutsa den konpromiso bat, eta ez dute erakundearekin edo horren kausarekin identifikatu nahi, berehala jardun baizik. Beraz, nahierako boluntariorza bilatzen da, bai dedikazio-denboretan, bai egin beharreko zereginetan, eta erakundearen parte izan beharrik gabe.

Horrez guztiaz gain, boluntariorza eta parte-hartzea utilitarista direla esaten da maiz. Gero eta joera handiagoa dago nolabaiteko interesa bilatzeko. Ez du zertan ekonomikoa izan, baina bai, esaterako, ikasketa-kredituak edo lan-esperientzia. Halaber, antzematen da boluntariorza aisialdirako, sozializatzeko eta norberaren beharrei erantzuteko modu bat dela, gero eta gehiago.

Hirugarrenik, **erakundeei eta parte hartzeko moduei** buruz mintzatu behar gara. Eta pertzepzioak zentzu berean doaz. Gero eta argiagoa da banaketa: erakunde handi gutxi eta txiki asko; horiek denak gero eta instrumentalagoak dira, gizarte-oinarri eskasekoak, eta, batzuetan, ez dute proiektu indartsurik atzean eta ikuspegi kritiko gutxi dute. Erakundeak orain dela asko hasi ziren zerbitzu-ematearen inguruan lanean eta hori areagotu egin da krisiarekin. Ondorioz, aldarrikapenaren kultura galdu egin da bidetik, eta lehentasun handiagoa ematen zaio baliabideen kudeaketari, misio eraldatzaileari baino. Kasu askotan, eutsi egiten zaio aldaketaren erretorikari, baina asmo-adierazpen hutsean gelditu ohi da, eta esandakoa eta praktika ez datoz bat; beraz, azkenean, laguntza-lanak egiten dira.

Kontuan izateko beste elementu bat utilitarismoa da, boluntariorzarekin gertatzen zen moduan. Bi zentzutan: Batetik, enpresa-elkarte izenda genezakeena azaleratzen ari da; alegia, gizarte-erakundeak, lanpostuei estaldura ematen dietenak, elkartearen forma juridikoaren azpian gordeta. Bestetik, ustiatzeko baliabide gisa ikusten dute erakundeek boluntariorza; hots, doako eskulana, erakundeko langile kontratadunen lanetan laguntzen duena edo hutsuneak betetzeko balio duena, ezin baita kontrataziorik egin.

Egiturari eta lan-dinamikei dagokienez, erakundeak organismo itxiak eta malgutasun txikikoak dira orain, ez dute lidergo argirik eta belaunaldi-erlebo gutxi dute, batik bat zuzendaritza-organoetan. Aldiz, parte hartzeak gora egin du aldizkako plataformetan. Plataforma horiek ez dira iraunkorak, hasiera- eta amaiera-datarekin sortzen dira, behar jakinei eta helburu oso zehatzei erantzuten diete, bai eta, batzuetan, bultzada mediatikoei ere. Erakundeek funtzionatzeko eskema zaharrak dituzte oraindik, eta bere zereginen egituraketa pixka bat erdoilduta dago. Beraz, zaildu egiten da hein batean parte-hartzeko modu berriak eta pertsona berriak sartzea, batik bat gazteak, *modus operandi* ezberdinetara ohituta daudenak.

Azkenik, batzuek diotenez, arriskutsua da errealitatea kudeatzeko modu egituratuak –enpresak, alderdiak, sindikatuak edo erakundeak– pairatzen ari diren deslegitimazio orokorra eta gizarte-erakunde solidarioak ere kaltetzen has daiteke.

Zailtasunak

Boluntariotzak eta parte-hartzeak zailtasun asko eta askotarikoak dituzte. Jarraian, laburbildu eta bi kategoria handitan jaso ditugu, zerrenda modura; lehen kategorian zailtasun orokorrak bildu ditugu eta bigarrenean, berriz, gizarte-erakundeen zailtasunak.

Zailtasun orokorrak.

01.- **Ikusarazpen txikia.** Boluntariotzak eta parte-hartzeak gure gizartean duten rola ikusarazteko saioak egin dira azken urteetan, baina oraindik ere ez dugu guztiz ulertzen zer diren, zer lan egiten duten eta zer ekarpen egiten dioten benetan gizartearen eta demokraziaren garapenari.

02.- **Komunikazio eskasa.** Gizarte-erakundeek ez diote behar bezala heldu gai horri; alegia, komunikatzea eta ondo komunikatzea. Izan ere, salbuespenak salbuespen, ez dute komunikatzen edo gaizki egiten dute. Edo pertsona elkartuak eta funtsak erakartzera bideratzen da komunikazioa edo, asko jota, sentsibilizatzea. Arlo honetan, hiru zailtasun dituzte erakundeek. Lehenik, komunikazioa behartzat jotzen bada ere, ez zaio lehentasunik ematen; bigarren mailan uzten da, eta saihestu egiten da edozer zailtasun agertzen denean. Bigarrenik, komunikazioa lan konplexua da, eta denbora, plangintza eta baliabideak eskatzen ditu. Batzuetan, gainera, laguntza profesionala behar da edo, gutxienez, prestatutako boluntarioak, eta ez dago horrelako asko. Hirugarrenik, komunikazio-prozesuek, batik bat hedabideak tarteko daudenetan, ezartzen dituzten erritmoek erakundeen gaitasuna gainditzen dute; izan ere, erakundeek beste erritmo batzuk dituzte, normalean, lasaiagoak.

03.- **Finantzazio-falta.** Krisia eta diru-laguntzen, hitzarmenen eta laguntza publikoetarako gainerako formulen arloan izandako murrizketak zailtasuntzat jotzen dira. Baina, harago doa; izan ere, benetan nabarmentzen dena da gehiegizko mendekotasuna dagoela administrazioekiko eta erakundeek zailtasun handiak dituztela baliabide propioak bilatzeko, eta, horri esker, ekarpen pribatuen diru-sarrerak ekarriko dituzten jarduerak garatzeko. Ildo horretatik, nabarmentzen da ez dagoela benetako komunitate-senik, herritarrak gizarte-ekimeneen kostuak beren gain hartzea animatuko dituenik. Horrez gain, ez dago ekimen motibatzaileak sortzeko behar den sormen eta irudimenik.

04.- **Atomizazioa.** Gizarte-mugimendua eta boluntariotza egitura askotan banatzen dira, ezarpen eta tamaina oso ezberdinekoak. Hori *a priori* positibotzat jotzen da, parte hartzeko moduen aniztasuna eta aberastasuna islatzen baitu, baina zailtasuntzat ere jotzen da. Horren harira, iritzi orokorraren arabera, erakunde eta plataforma ugari daude, eta askotan txikiegiak dira eta oso sakabanatuta daude. Ondorioz, gutxitu egiten dira, bai mugimenduak gizartean eragiteko duen gaitasuna, bai zerbitzuak emateko eraginkortasuna.

05.- **Gizarte-oinarri txikia.** Azken urteetan egin diren azterlanen arabera, boluntariotzaren bolumena handia da EAEn. Nolanahi ere, adituen ustetan, benetan konprometituta dagoen gizarte-oinarria ez da hain zabala. Horren isla dira, batetik, erakundeek jendea elkartzeko gaitasun txikia dutela eta, bestetik, ez dagoela erakundeak mantentzeko behar beste pertsona elkartu.

06.- **Bizimolde berriak.** Ezegonkortasunak eta arrisku-sentsazioak (beldurra) ez dute konpromiso egonkorrak eskuratzen ezertan laguntzen, ez kausekin, ez erakundeekin. Malgutasunez bizi gara eta, hori dela eta, zaila da boluntario-lanaren konpromisoa erakunde jakin batean sartzeko edo modu jarraituan gauzatzea, eta zaildu egiten da pertsonak inplikatzeko,

aldizkako kolaborazioetatik harago. Oso zaila da egoera hori kudeatzea, gaur egungo erakundeek aurreko gizartearen egiteko moduak jarraitzen baitituzte.

07.- **Gizarte-erritmoak.** Aldatzen ari den gizarte honetan, bizkortu egin dira erritmoak eta jokoz kanpo gelditu dira boluntariotza eta horretan diharduten erakundeak. Hedabideekin erlacionatutako komunikazioarekin gertatzen zen bezala, erakundeen denborak motelagoak dira eta ez dira gaur egungo gizartearen dinamismoarekin moldatzen.

08.- **Konfiantzarik eza.** Gizarteak oso iritzi ona du boluntariotzaz, parte-hartzeaz eta gizarte-erakundeaz; nolana ere, errezeloa sortzen hasi da baterako lanari dagokionez, erakundeek, alderdiek eta abarrek baterako kudeaketaren arloetan egiten duten lanak sortzen duen mesfidantzak bultzatuta. Hala, partikularrean jartzen dugu konfiantza. Komunitatearen baliotik indibidualtasunaren baliora igaro gara; hots, gertuko pertsonarengan edo parekotzat dugunarengan dugu konfiantza, ez kontrolatzen ez ditugun eta parte-hartzea zaila den erakundetan edo egituretan.

09.- **Lan-prekarietatea.** Hirugarren sektoreak lan-prekarietatea du bereizgarri, eta hori larriagotu egin da azken urteetako krisia dela eta. Horrek sistema gaizto batera eraman gaitu: gero eta profesionalizazio, prestakuntza eta esperientzia handiagoa eskatzen da, baina lan-aukerarik egon gabe. Boluntariotza curriculum handitzeko aukera bilakatu da, lanpostu bat lortzea xede izanik. Hori horrela izanik, pertsona asko (batik bat gazteak, baina ez horiek bakarrik) boluntario-lanetan aritzen dira esperientzia hartzeko, eta, aldi berean, erakunde askok halako pertsonetara jotzen dute kostu txikiko lanak egin ditzaten, boluntariotzan ari direlakoan. Utilitarismoari buruz aipatutako alderdiak ere zailtasunen talde horretan sartuko lirateke.

10.- **Ikuspegi eraldatzailerik eza.** Aipatu dugu dagoeneko alderdi hori, baina nabarmentzekoa da zailtasun gisa ere aipatzen dela. Gehituko dugu, baina, zailtasun hori ez dela proposamen asistentzialistak egotean oinarritzen –elkarrizketatuen arabera, egon behar dute eta beren funtzioa betetzen dute–; aitzitik, boluntariotza alde horretara jotzeko arriskuan dago, pendulumugimenduan bezala, mezu kritiko eta eraldatzailea erabat baztertuta.

11.- **Kanpoko motibazioak.** Askotarikoak dira parte-hartzera eta boluntariotzan aritzera eramaten gaituzten motibazio pertsonalak; epe motzera egiteko nahia dute bereizgarri, eta behar partikularrak gailentzen dira, gizarte-errealitatearekiko proiektio kolektiboko jarrera kritikoaren gainetik.

12.- **Lidergo gutxi.** Lidergo-krisi handia dago parte-hartzearen eta gizarte-mugimenduaren barruan, edo, beste era batera esanda, borondateak gizarte-eraldaketarantz edo aldatzeko proposamenetarantz erakartzeko gai diren pertsonen edo proiektu kolektiboen krisia. Halaber, ekintzaileak falta dira gizartearen; ez dago parte hartzeko modu berriak proposatzeko eta erakunde zahar askoren funtzionamendu zurruna berrasmatzeko gai denik.

13.- **Administrazioaren konpartimentazioa.** Ematen du administrazioek konpartimentu estankotan lan egiten dutela, gizarte-errealitateen zeharkakotasuna ahalbidetu gabe; hots, ez da neurri integratzailerik hartzen eta ez dago gizarte-mugimenduarekin lan egiteko organo eraginkorrik. Zaila da sailen artean, lurralde barruan eta erakunde barruan lan egitea. Gainera, administrazioak banan-banako harremana izan ohi du erakundeekin, eta ez du sustatzen ez lankidetzaz-espaziorik, ez lanaren zeharkakotasuna.

14.- **Gehiegizko burokratizazioa.** Gizarte-mugimenduarekin eta erakundeekin lankidetzan aritzeko jarraibideak ezartzeko orduan, areagotu egin dituzte eskakizun formalak administrazioek, batik bat finantzaketari dagokionez. Eskaera eta urratsen egitura konplexu bihurtu dira, eta asko zailtzen dute baliabideak eskuratzeko aukera, bereziki erakunde txikiei.

15.- **Administrazioaren apustu falta.** Adierazi denez, administrazioak ez du parte-hartze sozialean sinesten, ez eta horrek egiten duen lanean ere; alderdi utilitarista hutsera mugatzen da, eta modu mugatuan. Diru-laguntzak eta babesak, esaterako, ekintzan, boluntarioen kopuruan eta programatutako ekintzen kopuruan zentratzen dira, eta ez hainbeste egindako lanaren kalitatean edo aldatzeko duen gaitasunean. Izan ere, gastutat jotzen du gizarte-eremua administrazioak, ez inbertsiozat; eta, gainera, gizarte-mugimendua agente

kolaboratzaileztat jo ordez, mehatxutzat jotzen du, kritikatzeko eta politikan eragiteko rola gauzatzen duenean.

Gizarte-erakundeen zailtasunak

01.- **Egitura-zurruntasuna.** Oro har, gizarte-erakundeak zurrinak eta itxiak dira. Beren egiturak eta egiteko moduak irauteko daude pentsatuta, ez aldaketak, proposamen berriak eta barruan parte hartzeko modu ezberdinak –malguagoak– sartzeko gai izateko.

02.- **Prestakuntza-falta.** Prestakuntza-falta dute erakunde guztiek, baina, batez ere, ertain eta txikiek edo boluntarioritza corpus nagusi dutenek, nagusiki kudeaketarekin, plangintzarekin eta komunikazioarekin erlazionatutako alderdiei dagokienez.

03.- **Barruko parte-hartzearen mugak.** Erakundeetako boluntarioek parte hartzeko muga handiak dituzte kasu gehienetan, bai jardueretan, bai kudeaketa- eta zuzendaritza-organoetan, eta proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko aukera txikiak dituzte. Dela bide egokirik ez dagoelako, dela erakundeak boluntarioritza eskumen jakin batzuetatik kanpo uzteko berariazko politika duelako.

04.- **Profesionalizazioa.** Azken urteetan, profesionalizaziorantz jo du gizarte-sektoreak; erakundeak kudeatzeko profil ordainduak sortu ditu. Profil horiek lehen boluntarioritzak hartzen zituen esferak hartu ditu, eta laguntza-zereginetara baztertu du, are desagertzea eragin ere.

